

4.—Izenak 1961-gko. semendiaren 30-erarte artuko dira Markiñako Ayuntamentuan. Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

5.—1961 abenduaren 8-an partiduko dira sariak, eta aurrerengo gelditu direanak, publikoaren aurrean, dakien zerbait esan edo kantauko dabe.

Beste sariketa bardin bat imini dabe Euskaltzaindiak eta Ondarruako Ayuntamentuak alkartuta. Ondarruako sariak 1961 abenduaren 24-an partiduko dira.

1962 DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIAREN OIÑARRIAK

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oiñarriak auek dira:

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke novelak.
- b) Gaia nai dan bezelakoa izan diteke, eta lanak nor berak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.
- d) Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora beera) gutxienez 150 folio dituala.
- e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu ezifia.
- f) Saria, gabe gelditu diteke egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.
- g) Batzarrea Bizkaiko Ahorro Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez, lanak bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.
- h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6, Bilbao) 1962-gko. uztaillaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

EUSKAL-SARIKETEEN AMAR URTETIK AMABOST URTERAKO NESKA-MUTIL BIZKAITARRENTZAT (1962-rako)

1961 urteko oiñarriak eurak izango dira. Izenak 1962 gko. aprillaren 30-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean. Irakurtea **lpuin barreka** liburutik be egin leiteke.

POESIA SARIAK

Euskaltzaindiak erabakia du urtero Lizardi saria ematea olerkariarentzat eta beste sari bat bertsoariarentzat bertso paper argitaratuak bialtzen badituzte.